



Duintasunez biziko bagara elkarrizketa landu behar dugu

Demagun taldeak bakea eta elkarbizitza sustatzeko proposamen berria landu du iragan Eguberrietan. Ekimena hausnarketarako gunea da. Gogoetaren eta eztabaidaren bidez euskal gizartearen egoera soziopolitikoaz aztertzea xedea dute antolatzaileek.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

Donostiako Ernest Llluch Kultur Etxean bost lagun bildu ziren Alberto Surio kazetari eta moderatzailearen inguruan: Itziar Aizpuru (Bakearen Aldeko Koordinakundea), Ramon Etxezarreta (Donostiako Udaleko Kultura zinegotzia), Joxan Rekondo (Gipuzkoako batzarkidea, EA), Fito Rodriguez (idazlea) eta Bixente Serrano Izko (idazlea).

Demagun taldearen anagramak “parlar, falar, hablar eta hitz egin” dio. Mintegi moduko hau Espainiako Estatuko beste erkidegoetara zabaltzea asmoa dute. Gogo handiz hartu genuen taldearen gonbidapena. Besteak beste, aipatutako hizlariak gainera, Gorka Espiau (Ibarretxe lehendakariaren aholkularia) eta PPko Iñigo Manrique (Gipuzkoako batzarkidea) gonbidatuak zirelako. Lehena ez zen etorri lan arrazoiak zirela medio. Bigarrena berriz, parte hartzeko gogoaz azaldu ondoren, bere alderdiaren estrategiak eragotzi zuelako.

Ramon Etxezarretaren hasierako hitzak hartu ditugu mahai-inguruaren giroa baita gizartean gaur egun dagoen “elkarrizketa”ren egoeraren neurgarri. Etxezarretaren hitzetan beti berarekin akordatzen dira “marroi” horie-

tarako, baina bera han zegoela: Lehendakariak bere zerbitzuak beharrezkoak ez zituelako eta bere alderdiari ez ziolako iritzia eskatu. Hori esanda, hizketaldi osoan ez zuela biktimarena egingo hitz eman zuen.

“Elkarrizketak tresna baliagarria izaten jarraitzen al du egungo egoeraren ebazpenerako?” galdetuz, abiatu zuen solasa moderatzaileak.

**Elkarrizketa errealitatearen
ideia ezberdinak batzeko
saiakera da. Baina elkarrizketa
ez da borondate oneko kontua,
bizitzeko beharrezkoa baizik**

ITZIAR AIZPURU: Azken bake prozesuetan elkarrizketa eta negoziazioa ez dira ondo bereizi eta definitu. Ezin da jada elkarrizketa prozesu bat abiatu ETAk biolentzia behin betiko uztea erabaki ez badu. Hitz egin behar da, baina erabilitako formatuak ez dute balio honezkero.

RAMON ETXEZARRETA: Elkarrizketa baliagarria da, baina ez dago baldintza gabeko elkarrizketarik. Elkarrizketa gauzatzeko guztiok lengoia bera erabili behar dugu. Argot politikoan erabiltzen diren terminoak erretorikoak dira. Etsaia hitza, kasu. Mintzakidea etsaitzat jotzen den bitartean elkarrizketak ez du emaitza onik ekarriko.

JOXAN REKONDO: Elkarrizketa baliagarria ote



Itziar Aizpuru: "Hitz egin behar da, baina erabilitako formatoek ez dute balio honezkeror".



Ramon Etxezarreta: "Mintzakidea etsaitzat jotzen den bitartean, elkarrizketak ez du emaitza onik ekarriko."



Joxan Rekondo: "Elkarrizketak balio du, baina berau gauzatzeko baldintzak aldatuz doaz".

den? Esperientziak ezetz erakutsi digu orain arte. Elkarrizketa baliagarria da halere. Eskarmentua pilatu da maila eta testuinguru ezberdinetan. Elkarrizketaren baliagarritasuna demokraziaren oinarria da eta demokrazian ezin zaio elkarrizketaren bideari uko egin. Elkarrizketa demokraziaren markoaren baldintzapean gauzatu behar da, baina berau gauzatzeko baldintzak aldatuz doaz.

FITO RODRIGUEZ: Zer adierazi nahi du parlamentuak? Parlar. Baina demokraziaren helburua ez da gehiengoaren eta gutxiengoaren arteko elkarrizketa soila gauzatea, gizartearen kohesio handiena lortzea baizik. Gizartea komunitate ezberdinek osatuta dago eta egitura politikoak aldagariak dira. Marko politikoek eta estatusak iraungi data behar dute.

BIXENTE SERRANO IZKO: Orain arte ez da baliagarria dela frogatu, baina izan behar du. Ez dago beste irtenbiderik. Kontua da ez dakigula "arazoak" ondo azaltzen. Hor hasten da elkarrizketaren erretorika. Baldintzak aipatu dituzue, baina hauek ez dira betetzen. ETAren aldetik ez dago borondate politikorik eta Estatuok indar politiko handien aldetik ere ez.

Eztabaida irekia

Funtsean bost lagunek elkarrizketa-

ren defentsa egin zuten. Lehen hirurek bat egin zuten, ñabardurak ñabardura: oraingo marko demokratikoaren baitako elkarrizketa baliagarria da gatazka gainditzeko. Laburrean: esparru demokratikoak lehentasuna dauka euskal esparru-erikioan. Fito Rodriguez ez zeterren bat subjektu politikoa euskal herritarrek direlako, ez oraingo estatusa. Bixente Serrano Izko bat zeterren Rodriguezekin, baina bere ustez ETAK ere –Estatuaz beste– euskal herritarren erabakimena oztopatzen du.

Ondoren, solasaldia eztabaida bilakatu zen. Haien hitzek hauxe iradoki ziguten gutxi gorabehera: Nork bere erara ulertzen du elkarrizketa. Elkarrizketatzeko edo parlamentatzeko markoa zein den zehazteko orduan, denbora eta espazio aldagaiak zehaztea berebizikoa da. Horietan murgildu ziren solaskideak.

Zein da gaur egungo elkarrizketa politikoa finkatzeko abiapuntua? Trantsizioa, Espainiako Konstituzioa, Gernikako Estatutua, Lemoizko Zentral Nuklearra, NATOri buruzko erreferendumak, Ajuria Eneko Ituna, Lizarra-Garaziko Akordioa, Anoetako proposamena, Loiolako elkarrizketak... Horra, gure herri honetako azken hamar urteotako gatazkaren mugarriak. Horiek aipatu zituzten, besteak beste.

Fito Rodriguezek historia berrian murgiltzeko gogo bizia agertu zuen. Besteek egungo denboran eta espazioan mugatzea nahiago zuten. Rodriguezek ebatzi zuen: "Estatuak ez du soluzioa nahi, inboluzioa baizik". Beste lauek beste dimentsio batean jardun zuten, eta lau hauen artean Serrano Izko bere ñabardurak egin zituen. Arazoa espainolena edo euskaldunona ote den ere agertu zen eztabaidan. Zenbat buru hainbat aburu. Ñabardurak ere asko izan ziren.

Elkarrizketaren baliagarritasuna hizpide berriz ere, hona gure ondorioa: gatazkaren eragileek darabiltzan estrategiak nork bere probetxurako zuzenduak diren bitartean, elkarrizketek nekez ekarriko dute emaitza onik. Elkarrizketa gizartea kohesionatzeko baliagarria ez den bitartean, elkarrizketek huts egingo dute.

Prozesuek zer ikasgai ekarri dute, porrotaren ostean?

SERRANO IZKO: Frustrazioa. Baina ondorioak atera daitezke. Kasu guztietan eragileak nahasi ziren. Bat: ez zuten planteatu elkarrizketa arazoa konpontzeko, protagonismoa irabazteko baizik. Bi: gizartearen hegemonia ekarriko duen strategiaren orde, beren interesen aldeko estrategia erabili dute indar politikoek.



Fito Rodriguez: "Elkarrizketa baliagarria da, baldin eta oraingo estatusa aldatzeko balio badu".

ETXEZARRETA: Aukera galduak berreskura ezin dira. Balio dute ikasteko baina zerbait berria asmatu behar da. Jarrera sozialak landu behar ditugu esparru politikoan eragin dezaten. Baina uneon gauzagarria al da? Ez. Hurkoaren narpen sozialik gabe, ez. Hainbat herritar mehatxatuta dagoen bitartean, ez. Aniztasuna bokazioa eta jarrera da. Gizartea anitza da eta gizabanakook pluralistak izaten ikasi behar dugu. Lizarra-Garaziko prozesua norbanako pluralisten kontrako erdua izan zen, egoera negargarria.

RODRIGUEZ: Nire elkartasuna Ramon. Nik ere negar egiten dut, eta ni ere gatazka biolentzia esparru politikora ekartzeko lanean ari naiz. Artean baina, Estatuak darabilen bide politikoa kriminala da. Ajuria Eneko Itunaren bidea berpiztu nahi du berriz. Lizarra-Garaziren garaia ona izan zen, "demokrata" eta "biolentzia"en arteko dilema gainditzeko aukera zabaldu zuelako. Ez zitzaizula gustatu? Ados. Baina hortik ikasi behar dugu. Estatuak ez du urratsik eman nahi bide horretan. Berriz ere inboluzio garaia heldu da. Eta hemen ekaitza iragazten duena kartzelaratzten da.

REKONDO: Ramonekin ados, eta nire elkartasuna dauka. Frakasoetatik ikasten da. Lizarra-Garazi hasi zen



Bixente Serrano Izko: "Elkarrizketa beharrezkoa da, ona da berez, emaitza onik ekartzen ez badu ere, balio du".

moduarekin ados nintzen, baina gero hartu zuen bidearekin ez. Modu kritikoa bizi izan nuen prozesua. Nik, politikoki, Lizarrako eta Loiolako frakasoak denbora eta espazioan kokatzen ditut. ETaren estrategia politiko-militarra, maioismoaren ildokoa, gatazka luzatzearen aldekoa da. Politikoen arriskua epe laburrera jokatzeko da. Prozesuek ilusio handia dakarte baina porrotak desilusio are handiagoa. Denbora behar da, bidezidorrik hartu gabe, biolentziaren monopolioa horrenbeste erabili gabe eta alderdien elkar ulertzea medio. Espazioa gizarteak hautatu duen tokietan dago: parlamentuetan. Gizartea dinamizatu behar da denbora eta leku koordinatu horietan.

AIZPURU: Ikasgai nagusia hau: gizarteak ikasi behar du prozesuen porrota ETaren ardura dela. Gizarteak pentsatzen badu, prozesuaren ardura indar politikoen ardura dela, akabo. Eskema errepikatuta da: ETak maximalismoak planteatzen ditu eta jarraitzen du hiltzen. Ezin da jada ETak zer erabaki hartuko duen kontuan izan. ETak bortxa bukatutzat eman behar du kontrapartidarik gabe. Politikoki esparrua definituta dago, orain gizartea egituratu behar dugu biolentziak ez duela batere zentzu-

rik areago barnera dezan. ETak sentituko balu gizartearen gehien-goak ematen diola bizkarra aurreratuagoak ginatete. ETA sozialki irabazi behar dugu.

Onartu daiteke biolentzia justifikatzen duen eragilea elkarrizketan?

AIZPURU: Ez. Zure iritzia dela eta, zu akabatzen zaituelako.

REKONDO: Zaila egiten zait ETA onartzea mintzakide bezala. Baina Ajuria Eneko 10. puntu horrela dago idatzia.

ETXEZARRETA: Biolentzia erabiltzen duena ez da eragile politikoa. ETArekin hitz egin behar da, baina ez markoaren aldaketaz.

SERRANO IZKO: Zaila da erantzuten, ezinezkoa. Modu abstraktu batean ari gara. ETak utzi behar dio eragile eta mintzakide politiko izateari, baina hitz egin behar da dagoen arazoa konpontzeko. ETari irtenbidea eman behar zaio gizartearen koherentsia gauzatu ahal izateko.

RODRIGUEZ: Gakoa hau da: "demokrazia gehiago eta biolentzia gutxiago". Hemen Estatuak alderantzizko formula darabil. Ados nago Itziarrek ezin dela ETaren zain egon esatean [ironiaz], bestela Estatuaren inboluzio nahia gailenduko da.

Ondorio gisa

Hizlariari entzundakoan, ondorioa: Elkarrizketa beharrezkoa da. Mahai-inguruan egindakoa lekuko. Ikasi behar dugu elkar entzuten. Gatazka ez da gaiztoen eta onen arteko auzia. Euskal Herria edo gizartea ez da maitatzen norbanakoa eta hurkoa banan bana maitatu gabe. Elkarrizketa ez bada esperientzia pertsonal gisa lantzen, gizartean eta praktikan, ez du emaitzarik ekarriko. Alabaina, ez gaitzen inozoak izan elkarrizketa politikoa da, ez da huts eta aratz. Ezin dugu elkarrizketa idealizatu. Elkarrizketa errealtatearen ideia ezberdinak batzeko saiakera da. Baina elkarrizketa ez da borondate oneko kontua, bizitzeko beharrezkoa baizik. Elkarrizketak norbanakoari duintasuna ematen dio. ■